

noaua



“IKA IKA IKA, HEMEN DATOR KORRIKA”

Martxoaren 25eko eguerdian Zubietatik sartuko da Korrika, eta erdigunea zeharkatu eta gero, Mapil aldetik segiko du / 09

NOAUA

Orburutxo eta Zainzuriñe, Korrikako lagun berriak / 10

Korrikaren bueltan ekitaldi ugari iragarrita daude / 11

Etumeta AEK euskaltegiaren literatura lehiaketa martxan da / 14

Imanol Epelde: "Usurbilgoa plaza berezia da niretzat" / 16



24. Korrikaren antolatzaileak, edizio hau aurkezteko eginiko agerraldian.

Zuberoatik mendebaldera, Korrika

Bi urtean behin, zirrara eta emozio handiz biziartzten gaituen Korrika hemen da. Martxoaren 19tik 29ra etenik ez duen lasterketa batean murgilduko da Euskal Herria, baita Usurbil ere. AEK-k prest du guztia, badatorren lasterketarako.

ARITZ LASARTE

2.175 kilometro, 3.436 lekuko-hartze (inoizko gehienak antolatzaileen esanetan) izango dira, martxoaren 19an Zuberoako Atharratzen hasi eta hilaren 29an Bilbon helmugaratu arte. Une hunkigarri bat baino gehiago iragarri ditu AEKk abiatzeaz den 24. Korrikara begira, Errigoraren, Kontseiluaren, Palestinaren edota Teresa del Valle antropologoaren aldeko kilometroetan, baita Korrikaren "ahizpen" parte hartzea ere; Okzitaniako La Passemek Atharratzen, edo Britainiako Ar Redadeg-ek Errezilen bat egingo dute aipatu ekimenarekin.

"Euskara gara" izango du aldarri aurtengo edizioak, lehenengo Korrikaren 45. urtemugako "ez gara folklore, euskara gara" leloaren oroi-

gari izango dena. Euskararen ezagutza unibertsala, helduen euskalduntzea eta "hizkuntza-politika eta erreminta ausart eta sendoen premia" lehen lerroan jarri nahi dute Korrika honen bidez.

Oraingo honetan, Errigora omenduko dute, "euskaratik, euskararentzat eta euskaraz" egiten ari den lanagatik eta "Nafarroan, euskara ofiziala ez den eremuetan, euskalduntzean egiten duen esfortzua aintzatzeko".

"KORRIKAREN EMISIOA EGUNERO ESKAINIKO DUGU ZUZENEAN NOAUA.EUS WEBGUNEAN"

Korrikak badu abestia, "Xiberutikan Mendebaldera" izeneko, Pello Reparazek sortua eta Maixux Zugarramurdi eta Erramun Martikorenarekin batera eginga, bideo-klipa baita eta koreografia ere bai, korrika.eus atarian ikus dezakezue, gainerako xehetasunekin batera.

Zuzenean

Aurreko edizioen antzera, 24 orduz euskararen aldeko lasterketa zuzenean noiznahi

"EUSKARAREN ETORKIZUNA JOKOAN DAGO ETA GUZTION ESKU DAGO ERAGITEA"

jarraitzeko aukera eskainiko dute Youtube bidez. Noaia.eus atarian zuzeneko emisio horrekin bat egingo dugu Korrikak iraun artean.

Horrez gain, ezin gomendagarriagoa izango zaizue Korrikaren aplikazioa eskuratzea. Izan ere, bertan beharrezko informazio osoa jasoko duzue; "albisteak, azken uneko berriak, ibilbidea, mapa, lekuko-hartzeen bilatzailea, zuzeneko, bideo-kronikak, Korrikaren unean uneko kokapena... eta doan!", antolatzaileek nabarmendu duten moduan. Korrika Laguntzaile direnek gune pribatua izango dute bertan, txartel pribatua izateko aukerarekin eta astero egin ohi dituzten zozketen jakinarazpenekin.

Korrika Laguntzaile izan zaitezke Korrikari 15 euroko ekarpena eginda. Trukean edizioa pinatzen eta txartel birtuala jasotzen dira eta hainbat abantaila; asteroko zozketak, deskontuak AEKren ikastaroetan esaterako... Horrekin batera, Korrikaren materiala eskuratzeko aukera duzue oraindik online bidezko dendan, korrika.eus atarian. Erosketen azken eguna martxoaren 23a izango dela berri eman du AEKk.

Euskaltegi eta gau-eskoletara

Korrikaren bidez jasotako laguntza Euskal Herri osoko gau-eskolak eta euskaltegiak laguntzera bideratuko dute. Izan ere, "tamalez, bide luzea dugu aurretik, eta administrazioei dagokienez, esan behar dugu euskaltegi eta gau-eskoletan bideratzen dizkieten baliabideak ez direla nahikoak oraindik ere".

Hunkitzera eta parte hartze-ara deitu gaitu AEKk Korrika egunetan eta lasterketa igaro ostean ere, "egunero, euskara gararen aldarria kontuan hartuta, euskararen eta euskal komunitatearen alde egitera". Izan ere, "euskararen etorkizuna jokoan dago, eta guztion esku dago eragitea".



2024ko Korrikak Puntapax kalea zeharkatu zuen unea.

24 lekuko hartze, 11 kilometrotan

Hamaika kilometro eta lekuko hartze gehiago izango dira gure artera badatorren Korrikan; 24 erakunde, eragile edota elkarteek eramango dute euskarri preziatua hilaren 25ean, Zubietako hipodromoan hasi eta Aginagako Mapileraino lasterketak gurean egingo duen ibilbidean.

ARITZ LASARTE

Aurreko bi edizioetan, gure arteetik afalostean edo goizaldean igaro ostean, 2019. urteaz geroztik lehen aldiz, egun-argiz helduko da 24. Korrika udalerri honetara, duela bi urteko noranzko berean, gainera. 13:30ak pasatxoan izango da, Zubietako hipodromoko zubian hartuko du lekukoa udalerri honek, lasartearren eskutik. Hortik, Aginagako Mapilen oriotarrek hartu arte, hamaika kilometroko ibilbidea osatuko du euskararen aldeko lasterketa erraldoienak gure artean.

Kilometro aldaketa bakoitzean izango da lekuko aldaketa eta mila metroko distantzia horren baitan, kasu batzuetan eragile bakar batek eramango du, barruan mezu sekretua garraiatuko duen euskarri preziatua; beste zenbait

kasuetan, bi edo hiru eragileek partekatuko dute une zirrargari eta ahaztezin hori.

Erakundeak, ikastetxeak, herri eragile eta elkarte hainbatek bereganatu du ibilbidearen zatitxo bat eta horren bidez, ekimena eta AEK diruz lagunduko dute; horien artean izango da baita ere NOAUA! Kultur Elkartea.

Ibilbideari dagokionean, aldaketa esanguratsurik ez. Udalerrri hau zeharkatuko duen Korrika, aipatu moduan, Zu-

bietako hipodromoko zubitik barrena sartuko da. Zubietako eta Santuenea zeharkatuko ditu. Atallutik Bizkarrera igo eta handik sartuko da Kale Nagusia. Aliprox saltoki parean, Belmonte kaletik gora Kalezarko erdigunea zeharkatuko du Egurtzegi igaro arte. Handik behera, Ugartondoko auzune berria inguratu eta Puntapax kaletik barrena herri erdigunean sartuko da berri. BM saltoki parean lekuko aldaketa egin eta handik behe-

ra, Bordaberri eta Errekatziki kaleetara joko du, berriz Aliprox pareko biribilgunea inguratu eta Kale Nagusia sartu arte. Handik, N634 errepede parean sartuko da gero Atxegalde parean. Errepide horretatik irten gabe segiko du Aginaga zeharkatu eta lekuko preziatua oriotarren esku utzi arte.

Segidan dituzue, nortzuk hartuko duten lekukoa, noiz eta nondik noraino. Etumeta AEK euskaltegiak helarazitako informazioa duzue. Herria zain jada, Korrika heltzeko.

Lekuko hartzeak

- 13:37 1783. km, Zubietako hipodromoko zubian: Ikaslan, Zubietako Lanbide Eskola.
- 13:44 1784. km, Zubietako Lanbide Eskola parean: Zubietako Eskola, Zubietako Herri Batzarra.
- 13:50 1785. km, Zubietako Learritza 23an: Akaba, Fagor Ederlan.
- 13:57 1786. km, Amiri: Aztarrika Gazte Asanblada, Kolore Guztiak elkarte, Santuenea K.E.
- 14:03 1787. km, Santuenea-k zubia igaro ostean: Usurbilgo Udala.
- 14:10 1788. km, Belmonte kale hasieran: Orbeldi D.T., Zumarte Musika Eskola, Udarregi ikastola.
- 14:17 1789. km, Puntapax kalea, BM saltoki parean: Udarregiko LH 6ko ikasleak.
- 14:23 1790. km, N634 errepede, Atxegaldeko autobus geltokian: Elhuyar, NOAUA! K.E., Ta Puntu kooperatiba.
- 14:29 1791. km, N634 errepede, Lasao etxe parean: Usurbilgo EHBildu, Fagor Automation.
- 14:36 1792. km, N634 errepede, Aginagako Galardin: Aginagako eskola, Arrate jubilatua eta pentsiodunen elkarte.
- 14:41 1793. km, N634 errepede, Aginagako sarreran: Aginagako jai batzordea, Biziamaña Herri Kooperatiba.

"2019. URTEAZ GEROZTIK LEHEN ALDIZ, EGUN-ARGIZ HELDUKO DA KORRIKA"

"HERRIKO TALDE ZEIN ERAGILE EZBERDINEK ERAMANGO DUTE KORRIKAREN LEKUKOA"



"Asmatu Korrikako zein kilometrotan atera diren Orburutxo eta Zainzuriñe, eta irabazi sari bikainak egunero".

Orburutxo eta Zainzuriñe, Korrikako protagonista berriak

Aurten, Korrikak Errigora omentzea erabaki du, eta leku berezia emango dio edizio honetan. Horretarako, Errigorak bi ordezkari bidaliko ditu ibilbide osoan zehar, euskararen, elikadura-burujabetzaren eta auzolanaren aldeko aldarria zabaldu dezaten Euskal Herri luze-zabalean: Orburutxo eta Zainzuriñe.

ARITZ LASARTE

Bidelagun berriak izango ditu martxoaren 19an Zuberoako Atharratzen hasi, hilaren 25ean Usurbildik igaro eta hilaren 29an Bizkaiko hiriburu Bilbon helmugaratuko den 24. Korrikak; Orburutxo eta Zainzuriñe, Errigorako kideak hain zuzen.

Argazkian dituzue biak. Tuterako Orburutxo batetik, eta zainzuriñen lurretakoa den Leringo Zainzuriñe, bestetik.

Biek ala biek jakinarazi dutenez, "Errigoran parte hartzen dugu, auzolaneari aritzea oso gustuko dugulako eta haren bidez, Euskal Herri osoko lagun pila bat egiten ditugulako".

"Joko bat proposatzera gatoz"

24. Korrikan, hamaika egunez Euskal Herri luze zabalean egingo da euskararen aldeko lasterketa. Korrikara begira hain zuzen, "erronka bat jarri digute", jakinarazi dute Orburutxok eta Zainzuriñek. "Korrika badator, eta Errigorari leku berezi bat eman nahi

izan digute aurtengo edizioan", azaldu dute. Korrikaren 24. edizioko omendua izango da. Testuinguru horretan, "joko bat proposatzera gatoz". Guztiok izan gaitezke parte hartzaile. Adi; "gu biok egunero aterako gara Korrikara, baina sorpresa izango da, zein kilometroan aterako garen".

"ORBURUTXO TUTERAKOA DA. ZAINZURIÑE BERRIZ, LERINGOA, ZAINZURIEN LURRALDEKOA"

"EGUNERO, ZEIN KILOMETROAN EGINGO DUTEN KORRIKA ASMATU BEHAR DUZUE"

Horretara gonbidatu gaituzte, zein kilometroan aterako diren asmatzera. Asmatzaileen artean, Korrikak iraun artean, egunero, "sari bikainen zozketak" egingo dituztela iragarri dute.

Bat egiteko deialdi bikoitza

Lehiaketan parte hartzeko egin beharrekoa ere zehaztu dute dagoeneko. "Korrikaren aplikazioan sartu eta bideo kroniketara jo gu aurkitzera". Egun bakoitzean zein kilometrotan atera diren jakitean, gaueko 22:00etan hasi eta biharamunek goizeko 10:00ak baino lehen, errigora.eus atarian sartu beharko da. Bertan, "kilometroaren zenbakia eta zure datuak sartuta irabazle izan zaitezke".

Erronka horretan parte hartzeko gonbita egin dute Orburutxok eta Zainzuriñek. "Egin bat gurekin eta batez ere, egin bat Korrikarekin! Agerren eremuan ere euskara gara".

Korrikaren aplikazioa jaitsi nahiz Errigorari buruzko informazio gehiago jasotzeko atariotara jo dezakezue:

- korrika.eus
- errigora.eus

Errigorako eskaera egiteko azken egunak

Nafarroa erdialdean eta hegoaldean ekoizitako produktuak eskuratzearen truke, irabazien laurdena zonalde hartako euskalgintzara bideratuko da beste behin. Orain honetan, oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorriko prezioan erosi ahalko dituzue. Eskabideak, ohi bezala, NOAUA! Kultur Elkartean nahiz errigora.eus bidez egin ahalko dituzue. Maiatzaren 8an eta 9an banatuko ditu kultur elkarre honek, iaz bezala, Udarregi ikastolako erdiko aretoan.

Korrikaren bueltan ekitaldi ugari iragarrita daude

Korrika gure artera iritsi aurretik, Korrika egunean bertan, eta Korrika igaro eta gero. Deialdi ugari egin dira egunotarako.

Martxoak 19, osteguna
24. Korrikaren hasiera festara joateko autobus zerbitzua:
Abiatzeko ordua: 08:00etan Usurbilen, 8:15ean Lasarte-Orian.
Itzulerako ordua: 17:30etan Atharratzetik abiatu.
Izen-ematea: martxoaren 13ra arte.
Antolatzaileak: Usurbilgo Etumeta AEK eta Lasarte-Oriako Muntteri AEK euskaltegiak.

Martxoak 24, asteartea
Bazkalostean, Korrika Txikia Udarregi ikastolan.

Martxoak 25, asteazkena
Egun osoan zehar, Udarregin Korrika Festa.
13:37-14:47 24. Korrika Usurbildik.
Hasiera: Zubietako hipodromoko zubia (1784. kilometroa).

Amaiera: Aginagako Mapil ingurua (1.794 kilometroa).
Distantzia: 11 kilometro.
17:00 Frontoian txokolatea eta bizkotxoak.
Arratsaldean, Korrika Txikia Zubietan.

Martxoak 26, osteguna
19:00 Imanol Epelderen "Zerbait sartu zait begian" Sutejin.
Zehaztasunak: "Zerbait sartu zait begian spoken word-a, musika elektronikoa eta irudiak uztartzen dituen performance garaikidea da. Umorez eta irimotasunez, garai hauek kantatzera eta kontatzera datorren jendaurrekoa da".
Sarrerak: 6 eurotan alde zuzenetik, usurbilkultura.eus plataforman.
Antolatzaileak: Usurbilgo Korrika Batzordea eta Usurbilgo Udala.



Aginagan, Korrika Txiki ospatu zuteneko irudia, artxibokoa.

Martxoak 28, larunbata
12:00 Korrikari eskainitako kantu-jira, Mikel Laboa plazatik abiatuta.
Antolatzailea: Usurbilgo Euskal Kantu Taldea.

Martxoak 29, igandea
18:00 23. Laburbira Sutejin. Laburbira, euskaraz sortu eta ekoiztutako film-laburren zirkuitoa da.
Antolatzailea: NOAUA! K.E.

Euskararen aldeko abestietan erreparatuko du Kantu Taldeak

"Kukua entzun al duzue? Txepetxaren kabirik ikusi? Primaderako liliak azaldu al dira zure inguruan? Eta odola borborka jartzen hasi al zaizu? Zatoz gurekin Uda-berriari ongietorria ematera kantuz!". Hortxe Usurbilgo Kantu Taldekoek herriarrei luzatu dieten deialdia. Martxoaren 28ko saioan, euskara bultzatzen duten kantetan erreparatuko dutela azaldu dute.
"Korrikaren bueltan izango garenez, gure taldeak ere bere ekarpena egingo du martxo-

ko kantujira honetan, bereziki euskara bultzatzen dituzten kantak aukeratuz eta abestuz".
Bestelakoak ere hartuko dituzte gogoan datorren asteko hitzorduan: "halaber, gure kantu-zerrendan ere keinutxo bat egingo diegu Palestinari eta une hauetan gerra eta bortizkeria bidegabea pairatzen ari diren herriei".
Martxoaren 28an larunbatarekin, "eguerdiko 12:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuko gara. Animatu".



Martxoaren 28an, eguerdiko 12:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik.

Martxoak 28, larunbata
12:00 Korrikari eskainitako kantu-jira izango da martxokoa. Ohi bezala, Mikel

Laboa plazatik abiatuko dira.
Antolatzailea: Usurbilgo Euskal Kantu Taldea.



Maite Huerta eta Ander Manterola, Kolore Guztiak elkarteak, Donostiako Amara auzoko egoitza atarian.

"Lekukoa Usurbilen hartzea berezia izango da guretzat"

MAITE HUERTA ETA ANDER MANTEROLA KOLORE GUZTIAK ELKARTEKO KIDEAK

Lekuko hartze berriak izango da badatorkigun 24. Korrikan. Kolore Guztiak kulturarteko elkarteak eramango du euskarri preziatua Zubietatik Santueneara hilaren 25ean. Egoera zaurgarrian diren gazteak gizarteratzeko lanean dihardute.

ARITZ LASARTE

Kolore Guztiak elkarteak kide laguntza espezializatuko programa arduradun Maite Huertarekin eta elkartearen pisuetako batean gizarte hezitzaile lanetan diharduen Ander Manterolarekin bildu da he-dabide hau.

Egoitza Donostian izanda, nola-tan hartuko duzue lekukoa Usurbilen?

Maite Huerta: Egia esan, egoitza Donostian izan arren, Gipuzkoa osoan ditugu pisuak eta erabiltzaileak herrialde osoan bizi dira. Lekukoa Usurbilen hartzea berezia izango da. Lehen harrera pisua Txikierrdin ireki genuen 2009. urtean.

Korrikaren lekukoa eramango duzuen lehen aldia da?

Ander Manterola: Ez, bigarren aldia. Duela bi urte hartu genuen Mendaron, han beste pisu bat dugu. Oso polita izan zen, gazteentzat eta profesionalontzat. Azkenean, erabiltzaileak euskarara hurbiltzea, euskara gure herrian bizirik

"LEKUKO HARTZE BEREZIA IZANGO DA. LEHEN HARRERA PISUA TXIKIERDIN IREKI GENUEN"

dagoen hizkuntza dela ikusaraztea ahalbidetu zuen. Izan ere, gure esparruan, erdara asko erabiltzen da. Mendaroko esperientziaren ondotik animatu gara aurten berriz parte hartzera.

M.H.: Sektore oso erdaldunetik gatoz. 2007. urtean sortutakoan pentsaezina zen, urte

"ETORTZEN DIREN UNETIK ERDARA HUTSEAN EGITEN ZAIE, LEHEN HARRERA ERDARAZ EGITEN ZAIE"

batzuetatik hona euskararen inguruan nola lan egingo genuen irudikatzea eta euskara nola gerturatzeko ari garen erabiltzaileei. Euskaraldiaren lehen edizioarekin hasi ginen aldatzen. Lantaldean euskaldun zahar piloa ginen, baina gure artean bilerak erdaraz egiten genituen, tartean, telefonoa erdaraz hartu ere bai. Euskaraldiaren ondorioz, euskara gure jardunean txertatzen hasi ginen. Ordutik hona, aurrerapauso asko ikusi ditut gure elkartean, kontzientzia asko areagotu da. Egiten ari garen lanaren ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren Harrobi diploma eskuratua dugu. Esparru sozioekonomikoan euskararen erabilera, kudeaketa eta konpromisoa aitortzen ditu. Oraindik, halere, lan asko dago egiteke, erabiltzaileen aldetik.

Erronka handiena hor egongo da ezta?

A.M.: Erabiltzaileena bada erronka handiena, baina bada ere zaila. Etortzen diren unetik erdara hutsean egiten zaie, lehen harrera erdaraz egiten zaie, lehen hizkuntza ikasi behar dutena erdara da.

Harrera hori nola euskaldundu, hortxe bidea.

A.M.: Sistema bera dago pertsona hauek artatzen dituen unetik erdarara bideratua. Gure artera heldutakoa erdarara hurbilduko da lehenbizi.

M.H.: Guk gehienbat artatzen ditugun pertsonak migranteak dira. Normalki, bertako egoera sozioekonomikoaz eta politikoz gutxi dakite. Hemen finkatu eta argi izandakoan, Euskal Herrian bizitzat egin nahi dutela, agian, orduan eman daiteke ikuspegi aldaketa.

A.M.: Gure artera datozen gehienek ez dute Euskal Herriaren existentziaren berri, Donostia Espainiarekin lotzen dute. Baina haietaz eskubide bat da hori jakitea. Herri honen existentziak, hemen

→ hizkuntza ofizial bat bada ikusarazteak eraman gaitu Korrikan parte hartzera.

Zeintzuk dira zuen lan-ildoak?

M.H.: Kolore Guztiak 2007. urtean sortutako elkarte bat da. Garai hartan, adin txikiko etorkinen booma izan zen. Haientzako egoitza gutxi zeuden eta zeudenak gainezka eginda. Garai hartan konturatu ginen gizarte hezitzaile talde bat, 18 urte betetzean ez zegoela jarraipen lana egiteko baliabide nahikorik. Orduan, Gurutze Gorriak soilik artatzen zituen. Ezinegon horretatik hasi ginen biltzen, eztabaidatzen. Foru Aldundiak ere ikusi zuen ezin zuela egoera hori sostengatu. Gu eskaini ginen egoera horri irtenbide bat emateko eta hala hasi ginen. Lehen pisua Usurbilen ireki genuen, beste bat Villabonan. Gaur egunera arte, asko hazi gara.

Sorreratik gaur arte, nola eraldatu da zuen lan jarduna?

M.H.: Hasi ginenean, adin txikiko etorkinen profila oso desberdina zen, gaur egun datozenekin alderatuta. Jende behartsua zen haien herrialdeetan. Ordutik, asko eraldatu da profila. Gaur egun, elkarteak hiru lan-ildo ditu: batetik, ate irekien baliabide bat, lokal bat, kale egoeran dauden 18-30 urte artekoak artatzeko; bigarrenik, Gipuzkoa osoan zazpi etxebizitza ditugu; azkenik, laguntza espezializatuko programa dugu. Azkeneko bi egitasmo horiek Foru Aldundiarekin hitzartutakoak dira. Futbol talde bat ere badugu.

Bidelaguntza eskaintzen duzue.

A.M.: Bai, orientazioa, akonpainamendua... Askotan da jakitea benetan zer nahi duten lortu, zer helbururekin datozen eta horretan akonpainatzea. **M.H.:** Lortu nahi diren helburuak nahiko berdintsuak izaten dira, azkenean, pertsona guztiok behar berak ditugu. Baina garrantzia handia ematen



Santuenea K.E.-rekin eta Aztarrika Gazte Asanbladarekin partekatuko du Kolore Guztiak elkarteak lekuko hartzea.

ten diogu arlo administratiiboari, etxebizitza arloari eta emozionalari geroz eta gehiago. Etxebizitza arazo larria bada, pentsa bazterketa egoera batean dagoen pertsona batentzat. Buruko gaixotasunekin ere arazo asko izaten ari gara. Gazte asko ikusten ari gara kale egoeran egotearen ondorioz nola erortzen ari diren eta hori penagarria da. **A.M.:** Baliabide falta dago, itxarote zerrenda handiak daude... Gu behar horiek artatzen saiatzen gara, baina elkartetik haratago, benetan oztopo piloa dugu.

M.H.: Ilaran azkenak gara, gure erabiltzaileak beti dira azkenak.

Era berean, errealitate hori guztia ikusten lehenak zarete. Nola kudeatzen duzue hori?

A.M.: Nahi eta ezin. Garbi egoten da zein den egin beharre-

ko bidea askotan, baina oztopoak oso handiak dira, administratiiboak normalean. Frustragarria da guretzat profesionalki eta haientzat, zer esanik ez. Itxaronaldian dauden bizitzak dira, etengabeko ezjakintasunean, tristea da. Askotan helarazten diegun mezua izaten da itxaron, izan pazientzia baina pazientziak bere muga du. Haiek dakite gero emozionalki horrek guztiak zer eragin duen. Halere, gauza ederrak ere baditu ogibide honek. Oztopoez ari gara, baina batzuetan horiek gainditzen dira. Gauzak ondo ateratzen direnean, gugana etorritako pertsona batek zer nolako prozesu polita egin duen ikustea, denbora batera lanean edo ikasten, ondo dardela esanez idazten digutenean, betegarria da, baita zer nolako harremanak sortzen diren ere.

"BEHAR HORIEK ARTATZEN SAIATZEN GARA, BAINA BENETAN, OZTOPO PILOA DUGU"

"EZIN DA GIZARTE BAT ERAIKI ATZERRITARRAK KONTUAN HARTU GABE ETA HORI EGITEN ARI GARA"

M.H.: Aitortza handia jasotzen dugu erabiltzaileen partetik.

Zer eraldatu behar dugu, zuen bidelaguntza errazteko?

M.H.: Oztopo burokratiko asko daude. Bigarrenik, arlo komunitarioa ezinbestekoa da. Ezin da gizarte bat eraiki atzerritarrrak aintzakotzat hartu gabe eta hori egiten ari gara gizarte honetan. Laguntza eta baliabide piloa jarri bai, baina "besteentzat".

Horma hori oraindik hor dago ezta?

M.H.: Arlo komunitarioan zubi sendo bat eraiki beharko litzateke.

A.M.: Askok falta zaigu oraindik, harrera herri izateko. Elkar hurbiltzeko lanak alde bietara izan behar du. Askotan zenbat kostatzen den, pertsona migranteak berak lehen pausoa ematea. Komunitateak parte handia du "etorri!" esaterakoan.

Korrikaren lekuko hartzearen bidez, zer irudikatu nahi duzue?

A.M.: Inor ez dela ilegala. Herri honetan bizi den oro dela herria, euskara.

M.H.: Gure artera datozenen ikusgarritasun positiboa ematea.



Larraitx Agirre Goibururen idazlanak eraman zuen iazko lehiaketako sari nagusia. NOAUA

"Zer nahi du Laiak?"

Iaz, 13 idazlan aurkeztu ziren Etumeta AEK euskaltegiak antolaturiko literatura lehiaketara. Larraitx Agirre Goiburuk idatzitako "Zer nahi du Laiak?" narrazioak eraman zuen lehen saria. Berarekin batera, aipamen bana jaso zuten Iñaki Agirresaroberen "Uxarrean" eta Mikel Muguruza Agirreren "Antzarak ilunabarrean" idazlanek. Aurtengo edizioa martxan dela aprobetxatuz, iazko lan saritua argitara emateko baimena eman digute. Lerrootan duzue Larraitx Agirre Goibururen lan saritua irakurgai.

Arratsaldeko 16:30ak dira eta ikastolako txirrinak jo berri du, haur guztiek ziztu bizian jaso dituzte euren gauzak motxilan eta korrika irten dira sarrerara. Laia ere bai. Han daude hainbat guraso askariarekin zain, eta baita Nerea ere, Laiaren hezitzailea. Nerearekin batera, beste lau neska mutil daude bere zain, ez dira bere anai-arrebak, baina hala balira bezala. Etxera bidean abiatu dira seiak elkarrekin, ikastolan egin dutenari buruz hitz egiten. Hara iristean sartu, eta oinetakoak kentzeko agindu die guztiei Nereak, eskilarapean utzi dituzte, eta etxeko zapatilak jantzi.

Beste sei oinetako pare daude bertan.

Lau urte ditu gure protagonistak, Laiak, eta etxe handi batean bizi da beste hamar haurrekin eta hainbat hezitzailearekin. Sei logela ditu etxeak, bikoitzak, bere gelakidea Elene da. Askaria eskuan duela, belardira irten da jolastera. Han daude bere kideak, anai-arrebak ez diren haiek. Pozik dabilta jolasean, baloiarekin, Nerea hurbildu zaionean. Bisita duela esan dio. Baina "gaur ez da asteazkena", pentsatu du Laiak. Asteazkenetan bere ama hurbiltzen da etxera, bi orduz berarekin egoteko. Nahiz eta, sarritan ahaztu egiten zaion amari. Berak, batzuetan,

amarekin bizitzera joan nahi-ko luke, baina besteetan arrotza egiten zaio hura, eta lorategian jolasten gusturago dagoela pentsatzen du. Nereari eskutik heldu eta etxera sartu da.

Bere logelara bidean, pentsatzen doa: nola esan amari nahiago duela kanpora irten anai-arrebekin jolastera berarekin egon baino?. Baina ez da hura gelan zain duena, bi emakume baizik. Garbiñe eta Nekane. Nereak azaldu dio, bi emakume hauek bera ezagutzera etorri direla, eta agian, egunen batean haiekin bizitzera joan daitekeela. Laia negarrez hasi da, garrasika: Nola joango da bera ezagutzen

ez dituen norbaitzuekin bizitzera? Zergatik ezin du dagoen lekuan geratu, betirako Elenerekin gelan? Garbiñek eta Nekane, gogo-gogo azaldu diote, lehenik eta behin, berarekin jolastera etorri direla eta ea etxea erakutsiko dioten. Laiak, lasaiago, eskutik eutsi dio Nekaneri eta etxe osoan zehar bira bat egin dute hirurek elkarrekin. Bukaeran, bere leku gogokoena erakutsi die, Lorategia, eta han, jolasean aritu dira denbora luzez. Joateko ordua iritsi denean, ea berriz ere ikusi nahiko lituzkeen galdetu die, Laiak momentu batez ausartu du: Nire ama haserretu egingo al da baizkoa esaten badut? Ez du erantzun.

Astebete pasa da, eta ikas-tolatik irtetean Nerea dago Laiaren zain sarreran. Gaurkoan gainontzeko kideak ez daude. Nekane eta Garbiñeren etxera joango direla gogorarazi dio hezitzaileak. Laiak korapilo bat sentitu du eztarrian eta negarrez hasi da, ama dattorkio berriz ere burura: nola esango dio beraien etxea ezagutzera joan dela? Bikotearen etxera iristean, han daude biak sarreran zain, txakur batekin: Txuri. Laia oso txakur zalea da. Gehien gustatu zaiona ordea, berea izango litzakeen logela da. Ohe handia, ikasteko mahaia, ipuinez jositako

"BERE LOGELARA BIDEAN, PENTSATZEN DOA: NOLA ESAN AMARI NAHIAGO DUELA KANPORA IRTEN ANAI-ARREBEKIN JOLASTERA, BERAREKIN EGON BAINO?"

→ tako apalategia, margotzeko hainbat tresna eta garbi usaina daude. Han irakurtzen eta marrazten irudikatu du bere burua. Bere klaseko lagun minaren, Mirenen, logela dirudi, eta beti izan du inbidia. Hor biziko balitz, Miren bere etxera gonbidatuko luke askaltzera. Arratsalde amaieran, Garbiñek eta Nekane ea han bizitzea gustatuko litzaiokeen galdetu diote. Berriz ere eztarriko korapiloa itzuli da ordea: nola esan amari bere etxean baino hobeto usaintzen duela han? Ez du erantzun, burumakur joan da handik ezer esan gabe, Nereari eskutik helduta.

Asteazkena da gaur, beldardian dabil jolasean. Deiar egin diote etxe barrutik Laiari, eta bai, gaur oroitzen da nor datorren bera ikustera. Barrura bidean, galdera bat darabil buruan: nola esan amari beste pertsona batzuekin bizitzera joan nahi duela? Amarekin askaltzen ari dela, Nereak erraztu dio bidea. Hark azaldu dio amari Laiak azken asteotan bikote bat ezagutu duela, eta ez litzatekeela aukera txarra berak berriz zaindu ahal izan arte, haiekin bizitzera joatea. Amak, negar artean, galdera egin dio, ea hori den berak nahi duena. Laiak ez du erantzun, burumakur geratu da berriz ere. Amak, begietako malkoak lehortuz, berak asko maitatu duela esan dio, baina orain ezin duela behar bezala zaindu, eta aukera ona iruditzen zaiola zoriontsu izango den etxe batera bizitzera joatea, baina amaz ez ahazteko eskatu dio. Laiak irribarre handi batekin erantzun dio, eta bere besoetara salto egin du, pozarren besarkatuz.



Argazkia iazko sari banaketa ekitaldikoa da. Partehartzaile guztiek oroigarri bana jasotzen dute.

Literatura lehiaketa, Etumeta AEK euskaltegiaren eskutik

18 urtetik gorako usurbildarrek edota euskaltegiko ikasleek parte hartu ahalko dute deialdi honetan.

OINARRIAK

Lanak

Hasteko, argi utzi nahi da ez dela inolako pertsona zein kolektiboren aurkako eduki iraingarriarik onartuko. Baldintza guztiak onartzea dakar parte hartzeak berak, lehen hau barne.

Parte hartu ahal izateko beharrezkoa da 18 urte beteak izatea lana bidaltzeko unean, eta Usurbilen erroldatua egotea edota Etumeta AEK euskaltegian matrikulatua.

Idazlanei dagokienez:

- Ipuin laburrak izango dira, 650 hitz, gehienez.
- Times New Roman letran idatziak, 12 neurrian, espazio bikoitzarekin.
- Gai librean idatziko dira.
- Lanak aurrez argitaratu gabeak izango dira, baita lehiaketa batera bidali gabeak ere.
- Euskaraz idatziak behar dute. Tokian tokiko hizkera ere erabili ahal izango da.

• Bi dokumentu bidaliko dira usurbil@ae.eus helbidera:

1. Dokumentua: Ipuina bera, marka identifikagarriarik gabe, PDF formatuan. Artxiboaren izena ipuinaren izenburua bera izango da: "IZENBURUA.PDF".

2. Dokumentua: Parte hartzailearen datuak, hau da, izena, bi abizenak, jaiotze data, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa, PDF formatuan. Artxiboaren izena ipuinaren izenburuarekin berarekin identifikatuko da: "IZENBURUA.DATUAK.PDF".

Etumeta AEK arduratuko da epaimahaikideei lanak bidaltzeaz, identifikatu ez dituzaten, baita, epaia ebatzi ondoren, hura bere egilearen datuekin lotzeaz ere.

Epeak

Literatura lehiaketaren antolaketa batzordeak epe hauek jarraituko ditu:

- Lanak bidaltzeko epea: Otsailaren 2tik apirilaren 22ra arte, biak barne.
- Sari banaketa egingo da irabazlea publiko, irabazleari emailez jakinaraziko zaio aurretiaz.
- Sari banaketa ekainaren 3an egingo da.

Epaimahaia

Epaimahaikideak hiru izango dira, eta Etumeta AEK-k aukeratuko ditu. Haien erabakia aldaezina izango da. Irabazle bakarra egongo da, eta gehienez ere bi aipamen; bakoitzari diru saria eta oroigarria emango zaizkio. Epaimahaia sariren bat eman gabe utzi dezake, merezitako lanik ez dagoela erabakiko balu.

Sariak

- Txapelduna: 150 euroko baliodun saskia.
- Aipamena(k): 70 euroko baliodun saskia(k).
- Parte hartzaile guztiak gonbidatuta egongo dira sari banaketara, eta oroigarri bana emango zaie.

Argitaratzea

Parte hartzaileek onartzen dute euren lanak argitaratu ahal izatea NOAUA! aldizkarian eta Etumeta AEKren sare sozialetan.



Imanol Epelderen ikuskizunak hitza, musika eta irudia uztartzen ditu. "Eta dena, antzerki ukitu batekin landua".

"Umorea ezinbesteko tresna bat da egunerokotasunari aurre egiteko"

IMANOL EPELDE 'ZERBAIT SARTU ZAIT BEGIAN' IKUSKIZUNEKO EGILEA ETA ANTZEZLEA

Geuretik Sortuak egitasmoari esker, Imanol Epelde zarauztarrak sormen egonaldi bat egin zuen iaz Ajangizen eta Muxikan (Bizkaia). Orduan landutakoaren emaitza da 'Zerbait sartu zait begian' ikuskizuna. Martxoaren 26an Suteğin ikus ahal izango dugu, Korrika Batzordearen eskutik.

IMANOL UBEDA

'Zerbait sartu zait begian' ikuskizuna *spoken word*-a, musika elektronikoa eta irudiak uztartzen dituen antzezlan garaikidea da. Hala irakurri dugu hor nonbait. Beste modu batean esanda, hitza, musika eta irudia dira erreminta nagusiak.

Eta dena dramatizazio edo antzerki ukitu batekin landuta dago. Kantutik asko du ikuskizunak, baina antzerkitik ere bai.

***Spoken word* estiloa poesiarekin lotu izan da, eta hip-hop musika motarekin. Zure aurreko emanaldian, 'Etxepare RAP' izenekoan, antzeko estiloak**

baliatzen zenituen, ezta? Ez da hain arrotza zure ibilbidean.

Ni bertso eskoletatik nator. Bertsolaritzatik asko edan dut eta bertsolaritzatik rap-a gertu sentitu izan dut beti, oinarrian hitza daukalako. Hitz errimatua. Rap zale izatetik, 'slam poesia' deitzen

"BERTSOLARITZATIK RAP-A GERTU SENTITU IZAN DUT BETI, OINARRIAN HITZA DAUKALAKO"

zaion horretara asko gerturatu nintzen gero. Beti txunditu izan nau hitza bere soiltasunean entzun eta izan dezakeen indarrak.

Eta hitzari musika eta irudia gehituz gero, oraindik eta indar handiagoa ematen zaiola iruditzen

"TESTUAK OSATU NITUEN LEHENBIZI. ETA TESTUAK DEKLAMATZEKO, MUSIKA BEHAR NUEN"

zait. Urteotan horretan aritu naiz, bai.

Musika elektronikoa zure deklamazioak egiteko baliatzen duzu, oinarri musikal gisa edo?

Bai, hori da. Gai jakin batzuen inguruko testuak osatu nituen lehenbizi. Testu horientzako musika behar nuen, oinarri horren gainean deklamatua ahal izateko; esan beharrekoa esan ahal izateko. Julen Idi-gorasek kantu bakoitzaren neurria konposatu du musika eta ikuskizunetan hortxe aritzen naiz, musikaren gainean erreztatzen.

"Umorez eta irmotasunez, garai hauek kantatzera eta kon-tatzera datorren jendaurrekoea da Zerbait sartu zait begian". Garaiak ez dira ordea, bereziki umoretsuak. Ahalegin berezia egin behar izan al duzu gidoi-ari forma eman ahal izateko?

Umorea baikortasunarekin lotzen dut nik, baina egia da egungo testuinguruak ez-kortasunera jotzeko aukera asko eskaintzen dizkigula. Hala ere, uste dut bizitzaren aurrean izan beharreko ja-rarrera bat badela, irmotasu-narekin eta baikortasunare-kin batera. Beste mundu hobe bat lortzeko ere, su hori piztuta izatea inportantea da. Alde horretatik uste dut umorea ezinbesteko tresna bat dela egunerokotasunari erantzuteko eta norbere bu-ruari barre egiten jakiteko ere. Ez da ariketa erraza. Baina nik behintzat, horrela ulertzen dut sorkuntza eta horrela ulertzen dut bizitza bera ere bai.

Tematikari dagokionez, bizi-moduaren abiadura, naturare-kiko deskonexioa, zoriontasu-naren bilaketa amaigabea, maskulinitatea eta euskara hartu dituzu hizpide.

Bost atal nagusi ditu. Aurre-nekoan, gaur egun denbora nola kudeatzen dugun, den-boraren esklabu nola bihur-tu garen,... horren inguruko

—> hausnarketa batzuk egin ditut.

Bigarren atalean, naturarekiko daukagun deskonexio kasik absolutuaz hitz egiten dut. Gero eta urbanizatuago gaude, gero eta errepide gehiago ditugu, gero eta hormigoi gehiago bazterretan... eta deskonexio horrek gure esentzian eragina du, gu naturatik gatzelako.

Hirugarrenean, zoriontasunaren bilaketa amaigabea erreparatu dut. Kontsumo tentazioz betetako apalategiez inguratuta bizi gara, erosteak zoriontasuna ematen digula saldu digute, eta horren inguruko hausnarketa batzuk egin nahi izan ditut.

Laugarrena maskulinitateari buruzkoa da, eta akaso hori izan da sortzen gehien kostatu zaidana.

Azken atalean berriz, hizkuntzari buruzko gogoetak egiten ditut. Garai aldakor eta azeleratu hauetan, identitatea zein nortasuna definitzea gero eta zailagoa den honetan, niri hizkuntzak horretan egundoko laguntza ematen dit. Ezinbesteko aingura zait euskara, nor izateko gizabanako gisa, eta kolektibo bezala ere bai.



"Umorea baikortasunarekin lotzen dut baina egia da testuinguruak ezkortasunera jotzeko aukera asko eskaintzen dizkigula".

'Zerbait sartu zait begian' ikuskizuna eskainiko duzu martxoaren 26an Sutegin. Korrika igaro eta biharamunean. Aretoa ezaguna egingo zaizu. Zure saioa egiteko toki aproposa da, ezta?

Usurbil plaza berezia da niretzako. Ama nuen usurbildarra, Santuenea auzokoa. Familia handia daukat Usurbilen, beraz, etxean bezala sentitzen naiz bertan. Sute-giko auditorioari dagokionez,

pare-pareko agertokia iruditzen zait, goxoa eta bildua, publikoa gertu sentitzeko modukoa.

Usurbilek niretzat esan nahi duen guztia kontuan hartuta, kariño handiz antzeztuko dudana eguna izango da martxoaren 26koa, zalantzarik gabe. Gogotsu nago. Une honetan, agendan dudana plazarik bereziena izango da. Eta pertsonalena ere bai.

"USURBILGOA PLAZA BEREZIA DA NIRETZAT. AMA SANTUENEOA NUEN. GOGOTSU ARITUKO NAIZ MARTXOAREN 26AN SUTEGIN"

Martxoaren 26an Sutegin, 'Zerbait sartu zait begian' ikuskizuna

Bizimoduaren abiadura, naturarekiko deskonexioa, zoriontasunaren bilaketa amaigabea, maskulinitatea eta euskara umorez nahastu ditut, publikoa hunkituz eta hausnarrera eramanez... Eszenan artista bakarra, irudiez eta musikaz lagunduta.

Martxoak 26 osteguna

- 19:00etan, Sutegin.
- Oholtza: Imanol Epelde.
- Sarrerak: 6 euro, usurbilkultura.eus plataforman.

- Antolatzaileak: Usurbilgo Korrika Batzordea, Udala.
- Sinopsia: "Bagara, baina ez dakigu oso ondo nor. Identitatea eraikitzea ez da erraza mundu azeleratu eta globalizatuan.

Bagaude, baina ez dakigu oso ondo non. Hemen eta edonon egon gaitezke aldi berean.

Bagoaz, baina ez dakigu oso ondo nora. Ez norbanako bezala, ez herri bezala.

Garai aldakor hauek bizitzeko modua da asmatu



Sarrerak usurbilkultura.eus webgunean eskuratu daitezke.

ezin duguna. Umorez eta irimotasunez, garai hauek kantatzera eta kontatzera

datorren jendaurrekoa da Zerbait sartu zait begian ikuskizuna".

otsailaren 26tik martxoaren 18ra
errigora.eus



ESKUTIK ESKURA EGITEN DUGU HERRIA



Eskatu **Nafarroa erdi eta hegoaldeko** oliba-olio birjina estra, kontserbak, ardoa, arroza, pasta eta lekaleak **euskaraz etiketatuta eta jatorrizko prezioan**



EGIN ZAITEZ BAZKIDE ETA LORTU ABANTAILAK!

www.noaua.eus

